

ADMINISTRAZIO KONTRATAZIOA

ESPEDIENTE ZK.: 04/10

XEDEA:

GUFeko GABRIEL MARÍA IBARRA-URDUÑA ZENTROAN JANTOKI, GARBIKETA ETA ARROPA IKUZTEKO ZERBITZU OSOA EMATEA, 2010EKO ABUZTUAREN 1ETIK 2011KO ABENDUAREN 31RA ARTE.

BEHIN-BEHINEKO ADJUDIKAZIOA

EBAZPENA:

GUFeko kudeatzaile jaunaren **848. Ebazpena**, 2010eko martxoaren 26koa; horren bidez, 2010eko abuztuaren 1etik 2011ko abenduaren 31ra arte, GUFeko Gabriel María Ibarra-Urduña zentroan jantoki, garbiketa eta arropa ikuzteko zerbitzu osoa emateko kontratua behin-behinean adjudikatu da.

BEHIN-BEHINEKO ADJUDIKATARIOAK:

- SOZIETATEAREN IZENA:
LANTEGI BATUAK FUNDAZIOA
- ADJUDIKAZIOAREN ZENBATEKOA -BEZ-A KENDUTA-:

2010eko urtekoa	240.646,89.-€.
2011ko urtekoa	606.073,66.-€.

WEB-EAN ARGITARATUTAKO EGUNA:

2010-03-26a

ESKATZEN DIREN AGIRIAK:

Kontratu honen preskripzio teknikoen pleguan eta administrazio klausula berezien pleguan eta Herri Administrazioen Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legeko 135.artikuluan aurrez ikusitakoarekin bat etorrira jakinarazten dizugu ondoren zehazten den dokumentazioa egiaztatzeko, www.ifas.bizkaia.net/contratospublicos web orrian argitaratu eta biharamunetik, gehienez, hamabost (15) egun balioduneko epea duzula :

- Behin betiko bermea eratu dela egiaztatzen duen dokumentazioa (administrazio klausula berezien pleguko 4. edo. 5 eranskinak). Hona hemen berme horren zenbatekoa: **42.336,03.-€.**
- Zerga betebeharrak ordainduta daukazula egiaztatzeko, foru ogasunek eta/edo hala denean, Zerga Administrazioeko Estatu Agentziak emandako ziurtagiria.
- Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituzula egiaztatzen duen ziurtagiri positiboa edo, bestela, dagokion mutualitateko alta.
- Ekonomi Jardueren gaineko Zergari dagokion uneko ekitaldiko alta-agiria edo azken ordainagiria, eta, hori osatzeko, aipatu zergaren matrikulan baja emanda ez zaudela ziurtatzeko erantzukizunpeko adierazpena (administrazio klausula berezien pleguko 6. eranskina). Zerga hori ordaintzetik salbuetsita bazaude, aipatu zergaren matrikulan baja emanda ez zaudela ziurtatzeko erantzukizunpeko adierazpena, eta salbuesteko arrazoia adieraziko duzu (administrazio klausula berezien pleguko 6. eranskina).
- Erantzukizun zibileko aseguruaren polizaren kopia eta kontratuaren kontratazio-primaren ordainagiria —aseguru horrek alde orokorra, patronala eta amaitutako lanak estali behar ditu—, preskripzio teknikoen pleguan ezarritakoaren arabera.

KUDEAKETAKO IDAZKARITZAKO BURUA,

Sin.: José Luis Camarón Bonacasa.